

Euskadiko gazte okupatu gehienek zerbitzuen sektorean egiten dute lan

Gazteen artean, zenbat eta adinez nagusiago, hainbat eta lanbide mota anitzagoak eta kualifikatuagoak



2001eko Biztanleria eta Etxebizitzen Zentsuak 16 eta 29 urte bitarteko biztanle okupatuei eta beren lanbideei buruzko datuak eskaintzen ditu.

2001eko datuek aditzera ematen dutenez, Euskadiko gazte okupatuen artean ohikoenak diren lanbideak honako hauek dira: merkatariak eta zerbitzariak (% 19,4); langile kualifikatuak (% 19,1); makineriako operadoreak (% 14,2); teknikari laguntzaileak (% 13,6); eta profesionalak eta teknikariak (% 11,5).

Datuak sexuen arabera aztertuta, mutilen artean lanbide nagusienak langile kualifikatuei (% 31,4) eta makineriako operadoreei (% 21,3) dagozkie. Nesken artean, ordea, azpimarratzekoak dira merkatariak eta zerbitzariak (% 32,6).

16 eta 29 urte bitarteko biztanle okupatuak, lanbidearen eta sexuaren arabera. EAE. Zenbaki absolutuak eta portzentajeak. 2001						
	Guztira		Gizonak		Emakumeak	
Guztira	199.873	100	113.052	100	86.821	100
Zuzendari gerenteak	5.890	2,9	3.373	3,0	2.517	2,9
Profesionalak eta teknikariak	22.948	11,5	10.058	8,9	12.890	14,8
Teknikari laguntzaileak	27.183	13,6	13.205	11,7	13.978	16,1
Administrazio arloko enplegatuak	20.478	10,2	6.815	6,0	13.663	15,7
Merkatariak, zerbitzariak	38.850	19,4	10.541	9,3	28.309	32,6
Nekazariak, arrantzaleak	1.526	0,8	1.323	1,2	203	0,2
Langile kualifikatuak	38.144	19,1	35.469	31,4	2.675	3,1
Makineriako operadoreak	28.326	14,2	24.031	21,3	4.295	4,9
Kualifikaziorik gabeko langileak	16.528	8,3	8.237	7,3	8.291	9,5

Iturria: Eustat eta bertan egina

Gazteek lan mota anitzagoak dituzte zenbat eta adinez nagusiagoak izan. Izan ere, 16 eta 24 urte bitartekoen artean, langile kualifikatuak eta merkatari eta zerbitzariak gailentzen dira. Adinez nagusienak direnen taldean (25 eta 29 urte bitartekoenean), aniztasuna handiagoa da: merkatari eta zerbitzariak, langile kualifikatuak, teknikari laguntzaileak, profesionalak eta teknikariak eta makineriako operadoreak dira lanbiderik ohikoenak.

16 eta 29 urte bitarteko biztanle okupatuak, lanbidearen eta adin-taldean arabera. EAE. Zenbaki absolutuak eta portzentajeak. 2001

	16-19		20-24		25-29	
Guztira	7.193	100	65.828	100	126.852	100
Zuzendari gerenteak	47	0,7	1.151	1,7	4.692	3,7
Profesionalak eta teknikariak	3	0,0	4.100	6,2	18.845	14,9
Teknikari laguntzaileak	205	2,8	7.676	11,7	19.302	15,2
Administrazio arloko enplegatuak	391	5,4	6.504	9,9	13.583	10,7
Merkatariak, zerbitzariak	2.006	27,9	14.704	22,3	22.140	17,5
Nekazariak, arrantzaleak	83	1,2	530	0,8	913	0,7
Langile kualifikatuak	2.457	34,2	14.811	22,5	20.876	16,5
Makineriako operadoreak	1.130	15,7	10.402	15,8	16.794	13,2
Kualifikaziorik gabeko langileak	871	12,1	5.950	9,0	9.707	7,7

Iturria: Eustat eta bertan egina

Arabian eta Bizkaian lanbide nagusia merkatari eta zerbitzariari dagokie. Haatik, Gipuzkoan, gailentzen dena langile kualifikatuari dagokie.

Hala Euskadiko gazteen baitan nola hiru lurralde historiko bakoitzekoenean, mutilen lanbide nagusia langile kualifikatuarena da, eta neskena, merkatari edo zerbitzariarena.

16 eta 29 urte bitarteko biztanle okupatuak, lanbidearen eta sexuaren arabera. Lurralde historikoak. Portzentajeak. 2001

	Araba			Bizkaia			Gipuzkoa		
	G	Giz	E	G	Giz	E	G	Giz	E
Guztira	100	100	100	100	100	100	100	100	100
Zuzendari gerenteak	3,0	3,2	2,8	3,0	3,0	3,0	2,8	2,9	2,7
Profesionalak eta teknikariak	10,1	7,7	13,2	12,2	9,5	15,6	11,0	8,5	14,4
Teknikari laguntzaileak	12,6	10,4	15,4	14,2	12,8	16,1	13,1	10,6	16,4
Administrazio arloko enplegatuak	10,3	5,8	15,9	10,7	6,5	16,2	9,5	5,4	15,0
Merkatariak, zerbitzariak	19,0	7,5	33,7	19,8	10,0	32,5	19,1	9,1	32,3
Nekazariak, arrantzaleak	1,1	1,7	0,4	0,6	1,0	0,2	0,8	1,2	0,3
Langile kualifikatuak	18,1	29,5	3,4	18,6	30,9	2,7	20,2	32,9	3,4
Makineriako operadoreak	16,1	24,3	5,6	12,0	18,5	3,6	16,5	23,9	6,6
Kualifikaziorik gabeko langileak	9,8	10,0	9,5	8,7	7,7	10,0	6,9	5,4	8,9

Iturria: Eustat eta bertan egina.

G (Guztira), Giz (Gizonak), E (Emakumeak)

Erlazionaturiko datu taulak:

[1. taula](#), (pdf, 230 kb)

Erlazionaturiko estekak:

[Gazteen Euskal Behatokiaren estatistikak](#)